

ERABAKIA, 2023ko MAIATZAREN 31koa, EUSKARA, KULTURA ETA NAZIOARTEKOTZEAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, DOKTOREGOKO IKASLEEK 2023/24 IKASTURTEAN ERASMUS+ PROGRAMAN IKASKETAK EGITEKO MUGIKORTASUN LUZEEN OINARRIAK ONARTZEKO DENA.

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzaren deialdi honek doktoregoko ikasleak hautatzeko prozedura ezartzen du, Erasmus+ programan ikasketak egiteko mugikortasun luzea egin dezaten 2023/24 ikasturtean.

Plaza onartuz gero, kasuan kasuko dirulaguntzak jasoko dira eta Erasmus+ programan epe luzeko mugikortasunetarako ezarri diren baldintzak bete beharko dira, Europako Batzordeak Hezkuntza Nazioartekotzeko Espainiako Zerbitzuaren (SEPIE) bitartez ezarritako jarraibideak betez.

Adierazitakoaren arabera, kontuan izanik kreditua badagoela, KA131 2022 proiektuari loturiko dirulaguntza kontratuko Europako funtsetatik, eta ditudan eskumenen babesean, hauxe

ERABAKI DUT:

Lehenengoa: Onartzea eta argitaratzea UPV/EHUko doktoregoko ikasleek 2023/24 ikasturtean ikasketetarako mugikortasun luzeak egiteko Erasmus+ deialdiaren oinarriak.

Bigarrena: Esleituko diren plazen kopurua aurrekontuaren araberakoa izango da.

Hirugarrena: Administrazio bideari amaiera ematen dion erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, administrazio auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, aintzat harturik Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legea. Hala ere, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakiok erabakia eman duen organoari berari, hilabeteko epean, aintzat harturik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikulua.

1. Deialdiaren xedea.....	3
2. Parte hartzeko baldintzak.....	3
2.1. Ikasleek bete beharreko baldintzak.....	3
2.2. Aurreikusitako jarduera.....	3
2.3. Iraupena eta egonaldia.....	4
2.4. Egonaldia luzatzeko aukera.....	4
2.5. Helmugak.....	4
3. Aurreikusitako finantzaketa.....	5
3.1. Europako finantzaketa.....	5
4. Eskaera egiteko modua.....	5
4.1. Eskaera eta nahitaezko dokumentazioa.....	5
4.2. Eskariak aurkezteko epea eta era.....	6
4.3. Eskaerak zuzentzea eta osatzea.....	7
5. Hautapen prozedura.....	7
5.1. Esleipenerako irizpideak.....	7
5.2. Erabakia.....	8
5.3. Onartzea edo uko egitea eta erreserba zerrenda.....	8
6. Mugikortasuneko ikasleen betebeharrak.....	8
6.1. Eskubideak eta betebeharrak.....	8
6.2. Onarpena helburuko ikastegian.....	8
6.3. Akordio akademikoa (<i>Learning Agreement</i>).....	9
6.4. Errendimendu akademikoa.....	10
6.5. Mugikortasunaren gauzatzea.....	10
7. Parte hartzeko konpromisoak.....	11
7.1. Egonaldiaren aurretik.....	11
7.2. Egonaldian zehar.....	12
7.3. Egonaldiaren ondoren.....	12
8. Dirulaguntza ordaintzea.....	12
9. Ez-betetzeak eta itzulketak.....	13

1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da UPV/EHUko doktoregoko ikasleak hautatzea, Erasmus+ programan ikasketak egiteko mugikortasun luzea egin dezaten 2023/24 ikasturtean.

Honen helburua da enplegarritasuna, gizarteratzea, konpromiso zibikoa, berrikuntza eta ingurumenaren jasangarritasuna sustatzea, European bertan nahiz Europatik kanpo, doktoregaiek beren ikasketa prozesuan atzerrian ikasteko aukera izan dezaten.

Hauek dira Erasmus+ programaren esparruan abiatutako ekintzen helburuak:

- Doktoregaiei beren ikasketa arloan ikuspuntu, ezagutza, irakasteko metodo ezberdinak aurkeztea, betiere Europako zein nazioarteko testuingurua kontuan hartuta;
- Zeharkako gaitasunak garatzea, hala nola komunikazioa, hizkuntza, pentsamendu kritikoa, arazoan ebazpena, kulturartekotasuna...;
- Etorkizuneko gaitasunak garatzea (gaitasun digital eta ekologikoak, besteak beste), gaurko nahiz biharko erronkei aurre egin ahal izan diezaieten;
- Garapen pertsonala bultzatzea, hala nola egoera berrietara egokitzeko gaitasuna edota norberaren gaineko konfiantza.

2. Parte hartzeko baldintzak

2.1. Ikasleek bete beharreko baldintzak

2.1.1. UPV/EHUko doktorego programaren batean matrikulatuta egotea **mugikortasun eskaera egiten duenean eta mugikortasun aldian egon bitartean.**

2.1.2. Egiatzatu egin beharko dute **gutxieneko hizkuntza ezagutza**, harrera erakundearen eskakizunen arabera.

2.1.3 Ikasleak Europako Batasuneko herrialde bateko nazionalitatea izan beharko du, edo bizi den herrialdean izan beharko da errefuxiatua, herrigabea, egoiliar iraunkorra edo aldi baterako egoiliarra (mugikortasunak dirauen artean bizileku baimena duena), kasuan kasuko estatuko legeriaren arabera halakotzat aitortua.

UPV/EHUren nazioarteko mugikortasun araudiaren arabera, ezin izango dute parte hartu ikasle bisitariak, halakotzat harturik araudi horren 3.9 eta 8.4 artikuluetan zehaztutakoak.

2.2. Aurreikusitako jarduera

Ikasleek atzerrian egingo dituzte ikasketak, Erasmus+ programari atxikitako goi mailako hezkuntzako erakunde batean.

Egonaldia Erasmus+ programaren mugikortasun gisa zenbatuko da, programaren denbora eta finantza mugak errespetatzeari begira (gehienez 12 hilabete ikasketa ziklo bakoitzeko).

2.3. Iraupena eta egonaldia

2.3.1. Mugikortasun fisikoa 2023ko irailaren 1etik aurrera abia daiteke, eta 2024ko ekainaren 31 baino lehen amaitu beharko da.

Edonola ere, interesdunari plaza esleitzen dion azken xedapena argitaratu ondoren hasi beharko da mugikortasun fisikoa.

2.3.2. Deialdi honetan esleitutako mugikortasun fisikoaren iraupena 2 eta 11 hilabete bitartekoa izango da. Erasmus+ programak ezarritako gutxieneko iraupena bete ezean, mugikortasuna baliogabetu egingo da eta parte hartzaileak jasotako Erasmus+ laguntzak itzuli beharko ditu.

2.3.3. Atzerriko doktoregoko ikaslea aldi baterako bizilekuan dagoenean edo ikasketengatiko egonaldia egiten ari denean, berak izango du bere baimenak berritzeko ardura UPV/EHUn egiten duen ikasketa epe osoan zehar.

2.3.4. Egonaldiaren iraupenak bat etorri beharko du doktoregoaren Batzorde Akademikoak ezarritakoarekin eta *Akordio Akademikoan (Learning Agreement)* zehaztuta dagoenarekin.

2.4. Egonaldia luzatzeko aukera

Egonaldiak luzatu ahal izateko, ikaslean helburuko unibertsitatean egonda eskatu ahal izango da. Adierazitako hilabeteak baino egonaldi luzeagoa egin nahi bada, Erasmuseko koordinatzaileen baimena beharko da (jatorrizkoarena eta helburuko unibertsitatekoarena).

Egonaldia luzatuko da, baldin eta (i) *Akordio Akademikoan (Learning Agreement)* egin beharreko aldaketak egiten badira, eta (ii) osasun aseguru gehigarriaren indarraldia luzatzen dela dioen agiriaren kopia aurkezten bada.

Egonaldi luzapen hori ez da izango, inola ere, automatikoa; eta **ez du ekarriko luzapeneko hilabetei dagokien finantza laguntza jasotzeko eskubidea.**

2.5. Helmugak

Eskatzaileak Doktorego Eskolarekin kontsultatuko ditu balizko helmugak. Helmugako egoitzak Erasmus Gutuna (ECHE) daukan goi-mailako hezkuntzako erakunde bat izan behar du, Erasmus+ programan parte hartzen duen herrialde batekoa.

Egonaldiak iraun bitartean, indarrean egon behar du UPV/EHUren eta atzerriko goi-mailako hezkuntzako erakundearen arteko Erasmus+ hitzarmenak.

Mugikortasunaren xede den harrera unibertsitatearekin hitzarmenik ez badago indarrean, beste hitzarmen bat sinatzeko ahalegina egin ahal izango da. Harrera erakundeak eta UPV/EHUK sinatu beharko dute hitzarmena, egonaldia hasi baino lehen. Hitzarmenik sinatzea lortzen ez bada, mugikortasuna bertan behera geratuko da.

3. Aurreikusitako finantzaketa

3.1. Europako finantzaketa

Erasmus+ programaren barruan mugikortasun plaza bat esleitzeak SEPIEK ezarritako dirulaguntza bat jasotzeko aukera ematen du. Dirulaguntza hori jasotzeko, mugikortasuneko ikasleak mugikortasuna hasi baino lehen sinatu beharko du laguntza hitzarmena.

Laguntza kontzeptu gisa emango den zenbatekoa kalkulatzeko, biderkatu beharko dira SEPIEK helmuga herrialdeari dagokionez komunikatutako zenbatekoa eta hitzarmenean sinatutako hilabete eta egun kopurua. Emaitza hori ordainduko zaio ikasleari.

CERTIFICATE OF ATTENDANCE delakoaren datak hartuko dira kontuan egonaldian benetan emandako hilabeteak eta egunak egiaztatzeko eta, hala badagokio, Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak ikasleari eskatuko dio egiaztatu gabeko denboragatik jasotako dirua itzul dezan. Egonaldiaren luzapenei dagokien finantzazioa ez dago bermatuta, erabilgarri dagoen aurrekontuaren arabera izango baita.

Webgunean eskuragarri dago SEPIEK herrialde bakoitzerako ezarritako zenbatekoen taula, kasuan kasuko maila ekonomikoaren arabera

Aukera gutxiago dituzten ikasleentzako laguntza gehigarri eta bidaiari ekologiko berrizko informazioa eskuratzeko, kontsulta ezazu Nazioarteko Harremanen webgunea:

<https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/dirulaguntzak>

4. Eskaera egiteko modua

4.1. Eskaera eta nahitaezko dokumentazioa

Eskaera egiteko, erabaki honekin batera web orrian argitaratutako eredu normalizatua erabiliko da.

Hutsak eta akatsak zuzentzeko epearen ondoren ez dira aintzat hartuko osagabe jarraitzen duten eskaerak.

Eskaerarekin batera, dokumentu hauek aurkeztuko dira:

1. Eskaera inprimakia (1. eranskina)
2. Doktorego tesiaren zuzendariak sinatutako azalpen txostena (1. eranskinean jasota).

3. Indarreko NANaren edo AITren kopia. Europar Batasuneko beste herrialde bateko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioan parte hartzen duen estatu bateko nazionalitatea duten pertsonak pasaportea aurkeztu beharko dute, edo tokian tokiko nortasun agiri baliokidea, jabearen nazionalitatea agertzen duena. Gainerako herrialdeetako pertsonak, ordea, Atzerritarren Identifikazio Txartela (AIT) aurkeztu beharko dute.
4. Laguntza kobratu nahi den aurrezki libretaren edo banku kontuaren titulartasun datuen kopia (IBANa BARNE). Nahitaez, laguntza eskatzen duen pertsonak izan beharko du aurrezki libretaren edo banku kontuaren titularra.
5. Hizkuntzen ezagutza egiaztatzen duten ziurtagiri ofizialen kopia.
6. Doktoregoan parte hartzeko bidea ireki dion titulazioko espediente akademikoaren kopia.
7. Doktoregoan matrikulatu izanaren frogagiria.

4.2. Eskariak aurkezteko epea eta era

Eskaerak egiteko epea zabalik egongo da 2024ko otsailaren 28a arte (egun hori barne), edo funtsak agortu arte.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikulua araber, aurkeztu beharko dira:

- Ahal dela, **UPV/EHUko erregistro elektronikoaren bidez:** <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>. Eskaeraren izenburu gisa jarri beharko da "Erasmus+ Deialdia 2023/24 (Doktoregoa)", eta «jasotzailea»-ren eremuan hau aukeratu beharko da: **Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza → Nazioarteko Harremanen Bulegoa (U02000247)**. Horretarako erabiliko da identifikazio elektronikoko sistemaren bat: a) Izenperen Erabiltzaile Ziurtagiri Digitala, b) UPV/EHUren Unibertsitate Txartela (Izenpe), c) NAN elektronikoa edo d) Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).
- Gainera, eskaera aurkeztu ahal izango da: a) sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan, b) UPV/EHUko edo sektore publikoko beste edozein erakundetako erregistro arloko laguntza bulegoetan, gaitutako funtzionario publiko baten bidez, c) Correoseko bulegoetan, eta d) Espainiak atzerrian dituen ordezkaritza diplomatikoetan edo kontsuletxeetako bulegoetan.

Erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurkezten diren eskariak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoan sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko berariazko adostasuna adierazi ondoren; guztia bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin, horren bidez onartzen baitira gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaietan laguntzeko bulegoak; eskaerak,

idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHU; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

Eskaera presentzialki aurkeztuz gero, helbide honetara joko da:

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.
Nazioarteko Harremanen Bulegoa
Biblioteka eraikina 2 - Sarriena auzoa z/g
48940 Leioa (Bizkaia)
Doktoregoko ikasleen mugikortasunerako Erasmus+ deialdia

4.3. Eskaerak zuzentzea eta osatzea

Eskaerak ez baditu betetzen 39/2015 Legearen 66. artikuluko baldintzak eta, hala badagokio, 67. artikulukoak, edota aplikatu beharreko legeria espezifikoa ezarritako beste batzuk, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari hutsak zuzendu edo falta diren dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaio ezen, hori egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, dagokion erabakia eman ondoren, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitako moduan (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 68. art.).

Akatsak zuzentzeko eskatzen zaien pertsonak erregistro elektronikoaren bidez aurkeztuko dute eskatutako dokumentazioa, aurretik adierazitako baldintzetan.

5. Hautapen prozedura

5.1 Esleipenerako irizpideak

Eskabideak ebaluatzeko batzorde bat sortuko da, honako hauek bilduta: Nazioarteko Mugikortasunaren arloko zuzendaria, Nazioarteko Harremanetako Zerbitzuko burua eta Doktorego Eskolako Nazioartekotzeko Batzordea.

Soilik ebaluatuko dira behar bezala aurkeztutako eskaerak, betiere egokiak badira eta deialdian jasotako helburuak badituzte.

Eskaera kopurua gehiegizkoa bada deialdirako funtsetarako, irizpide hauen arabera baloratuko dira:

- Nazioarteko mugikortasun programa batean inoiz parte hartu ez duenak lehentasuna izango du nazioarteko bigarren egonaldia eskatzen dutenen aurrean.
- Lehentasun hori ezarrita, hautaketarako oinarria **merezimendu akademikoa** izango da. Beraz, horretarako, kontuan hartuko da 2023/24 mugikortasun deialdian hautaketa egiten denean hautagai bakoitzak doktoregora sartzeko aurkeztu duen titulazioaren batez besteko nota.

- Kontuan izango dira, halaber, honako elementu hauek: eskariarekin batera aurkeztutako **memoria** eta jarduera egiteko erabiliko den **hizkuntzaren jakite mailaren ziurtagiria**.

5.2 Erabakia

Nazioarteko Harremanetarako Batzordeak erabaki proposamen bat onartuko du hilero, aurreko hilabetean jasotako eskaeren balorazioa eginez, deialdian parte hartzeko baldintzak betetzen direla eta eskatutako modalitaterako funtsak badaudela egiaztatu ondoren.

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak, aintzat harturik batzordeak eginiko hautapena, Nazioarteko Harremanen web orrian argitaratzeko aginduko du onartutako mugikortasunen zerrenda, atzera botatakoena eta erreserban gelditu direnena.

Deialdi honetan aurreikusitako mugikortasunak emateko edo ukatzeko erabakiaren aurka, dagozkion errekurtsioak jarri ahal izango dira, indarrean dagoen legeriaren arabera.

5.3 Onartzea edo uko egitea eta erreserba zerrenda

Azken xedapena argitaratuta, interesdunari 10 egun balioduneko epea emango zaio mugikortasuna onartzeko edo esleipenari uko egiteko. Horretarako, UPVE/HUko erregistro elektronikoen bitartez (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>) aurkeztu beharko da inprimakia, eskaeraren izenburu gisa jarrita "Erasmus+ Deialdia 2023/24 (Doktoregoa)", eta «jasotzailea»-ren eremuan hau aukeratuta: **Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza (Nazioarteko Harremanen Bulegoa (U02000247)**.

Plaza lortu ez duten pertsonen erreserba zerrenda argitaratu egingo da Nazioarteko Harremanen webgunean, eta uko egiteren bat gertatuko balitz, mezu elektronikoko bat bidaliko zaie, aintzat harturik zerrenda horretako hurrenkera.

6. Mugikortasuneko ikasleen betebeharrak

6.1 Eskubideak eta betebeharrak

ERASMUS + mugikortasun beka baten onuradunek ERASMUS ikasle gutunean ezarritako eskubideak eta betebeharrak dituzte, eta UPV/EHUren mugikortasunerako arauak eta harrera unibertsitateko arauak bete beharko dituzte han egon bitartean.

6.2 Onarpena helburuko ikastegian

UPV/EHUK mugikortasun plaza esleitu izanak **EZ du nahitaez esan nahi ikaslea harrera unibertsitatean onartu dutenik**.

Doktoregaiaren erantzukizuna da atzerriko unibertsitatean sartzeko kudeaketak egitea. Ikasleak bete beharko ditu unibertsitate bakoitzak onarpen eskabideak aurkezteko (kasu batzuetan on line) ezartzen dituen epeak; izan ere, unibertsitate askok ez dute onartzen epez kanpo bidalitako eskaririk.

Harrera herrialdean sartu eta trukeak iraun bitartean, doktoregaiak arduratu beharko dute han bizitzeko legez beharrezkoak diren baimen edo dokumentuak eskuratzeaz eta, hala badagokio, berritzeaz (bisak, egoiliar txartela, etab.).

Halaber, bere ardura izango da ostatuaren gestioaz arduratzea, unibertsitate horretan dagoen bitartean, baita unibertsitateak edo helburuko herrialdeak ezarriko luketen beste edozein baldintza betetzeaz ere. Arlo honetan, unibertsitate batzuek nahitaez ezartzen dute beraiek edo gobernuak eskainitako osasun aseguru baten kontratazioa Aseguru horiek kontratatuta ere, bidaiako laguntzarako aseguru ere kontratatu behar da nahitaez, gutxienez gaixotasun edo istripuagatiko osasun laguntza, aberriratzea eta osasun garraioa barne hartzen dituen, betiere helburuko tokian kontratatutako aseguruak estaldura hauek ez baditu.

Era berean, pandemiak eragindako osasun egoera dela eta, ezinbestekoa da kontratatutako aseguruak osasun estaldura izatea Covid-19ari begira, eta gomendatzen da aseguru bertan behera uztea barne hartzen duen bidaiaseguru bat kontratatzea.

Esleitutako helburu unibertsitatean doktoregaia onartzen ez badute, Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak (DOKE-ko koordinatzailearekin batera), arrazoiak aztertuko ditu, eta libre legokeen beste helmuga bat esleitzeko ahalegina egingo.

Ikasleak ez du tasarik ordaindu beharko harrera unibertsitatean, baldin eta horiek jatorrizko unibertsitatean ordaindu baitu. Hala eta guztiz, atzerriko unibertsitateak diru kopuru txikiren bat eskatu ahal izango dio, ikasleen sindikatuarentako afiliazioaren gastuei aurre egiteko, edota zenbait materialen erabilerak edo jarduerak dakartzaten gastuetarako (fotokopiagailuak, laborategiko produktuak eta abar). Bertako doktoregaiei eskatzen zaien kopuru berbera izango da.

6.3 Akordio akademikoa (*Learning Agreement*)

Helburuko unibertsitatean onarpen eskaeraren izapideak egiten diren bitartean, edo ondoren (helburuko unibertsitateak finkatutako prozeduren arabera), tesiko zuzendariarekin *Learning Agreement* delakoa bete beharko da. Bertan jasoko da zein diren helburuko unibertsitatean egingo diren jarduerak eta UPV/EHUko zeinekin baliozkotuko diren, eta kontratua loteslea izan dadin, bi unibertsitateen baimen sinadurak izan beharko ditu.

Akordio akademikoa formatu digitalean egingo da *Erasmus Without Paper* plataforman.

6.4 Errendimendu akademikoa

Harrera-unibertsitatean **ikasketa errendimendu ona** egiaztatu beharko da.

6.5 Mugikortasunaren gauzatzea

6.5.1 Finkatutako datan joan beharko da helburuko unibertsitatera; hala egingo ez balitz mugikortasuna bertan behera utzi dela ulertuko da. Berehala eman beharko zaio egoera horren berri Nazioarteko Harremanetarako Bulegoari eta DOKe-ko koordinatzaileari. Izan ere, jakinarazi ezean, baztertuta geratuko da UPV/EHUK gerora egingo dituen mugikortasun programen deialdietako hautapen prozesuetatik.

Mugikortasunaren egonaldi garaia edo lauhilekoa aldatuz gero, eta horrek eskaintako iraupena aldarazten badu, ezinbestekoa izango da Nazioarteko Harremanetarako Bulegoaren eta DOKe-ko koordinatzailearen oniritzia jasotzea. Horretarako, eskaeraren arrazoiak aztertu beharko dira aurretiaz. Oniritzirik gabe aurrera eginez gero, 9. atalean aipatzen dena aplikatuko zaio doktoregaiari.

6.5.2. Ikasleak, bere borondatez, mugikortasun aldia bertan behera uzten badu, horren berri eman beharko dio Nazioarteko Harremanetarako Bulegoari eta DOKe-ri; hortaz, bere egoera erregularizatzeko, mezu elektronikoa bidali beharko du helbide hauetara: nazioartekoak.mugikortasuna@ehu.eus eta doke.nazioartekoa@ehu.eus.

Jakinarazi gabe egonaldia etenez gero eta laguntzak ordaindu badira, zenbateko horiek berreskuratzeko erreklamazioa egingo da. Edonola ere, baimenik gabe mugikortasuna bertan behera utziz gero, jasotako laguntzak itzuli beharko ditu ikasleak.

6.5.3. Egonalditik behar baino lehen itzuliz gero, horren berri eman eta arrazoiak azaldu beharko du interesdunak. Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak eta DOKe-k aztertu egingo dituzte mugikortasuna uzteko argudiatutako arrazoiak.

Hori horrela, honako hauek baino ez dira hartuko salbuesteko kausa larritzat: ikaslearen edo haren senideen istripu edo gaixotasun inhabilitatzailea (odol ahaidetasunezko senideak, zuzenean lehen mailara arte edo zeharka bigarren mailara arte), edo legez eraturako bikotekideenak (ezkontza, izatezko bikotea, bizikidetza frogatua edo errektoreordearen iritziz bizikidetza behar bezala adierazten duen beste moduren bat). Egoera horiek frogatzeko, zuzenbidean oinarritutako frogabideak aurkeztu beharko dira. Alegazioak onartzen ez badira, eta zuzenbidean jar daitezkeen errekurtsioei kalterik egin gabe, ikasleak ezin izango du parte hartu nazioarteko mugikortasun programetan hurrengo ikasturtean.

6.5.4 Mugikortasuna hasi edo amaitzen denetik hilabete **BATEKO** epean, egonaldia bera eta haren iraupena egiaztatu beharko dira, helmugako unibertsitateak behar bezala sinatu eta zigilatutako ziurtagiri originalen bidez –Egonaldiaren hasierako ziurtagiria (*Certificate of Arrival*) eta egonaldiaren amaierako ziurtagiria (*Certificate of Attendance*)–. Era berean, egonaldi egiaztagiria adierazten badu egin beharreko denbora baino hilabete gutxiago egin direla han, egiaztatu gabeko hilabeteei dagokien dirua itzultzeko eskatuko da, kasuan kasuko programan zedarritutako arauak zein diren.

7. Parte hartzeko konpromisoak

Deialdian hautatutako pertsonak konpromiso hauek hartuko dituzte:

7.1. Egonaldiaren aurretik

Dokumentazio hau aurkeztu beharko da interesatua abiatu baino, gutxienez, hamabost (15) egun lehenago:

1. *Dirulaguntzaren hitzarmena:* Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak eskainitako hitzarmenaren kopia beteta eta sinatua entregatu beharko da hemen: nazioartekoak.mugikortasuna@ehu.eus.
2. Bidaia txartelen kopia, ibilbidea, datak eta bidaiaren tarte bakoitzean erabilitako garraiobideak zehaztuta. Hemen aurkeztu: nazioartekoak.mugikortasuna@ehu.eus
3. *Bisak:* Harrera herrialdera joan aurretik egin beharko dira hala eskatzen duten herrialdeetan egonaldia egiteko edo sartzeko beharrezkoak diren bisatuak eskuratzeko izapideak; eta joan aurretik egin beharko da, halaber, harrera unibertsitatean sartu ondoren herrialde horietan egiteko beharrezkoa den beste zeinahi administrazio izapide. Ez da Nazioarteko Harremanen bulegoaren erantzukizuna izango izapide hori egitea ahazteagatik doktoregaiak mugikortasunerako aukera galtzen badu.
4. *Osasun aseguria:* Gizarte Segurantzaren Europako Osasun Txartela eskuratu beharko da eta, atzerriko unibertsitatera iritsi aurretik, **bidaiarako laguntza aseguru** bat egin beharko da, aurreikusitako egonaldi osoan izan litezkeen gaixotasunen (COVID-19 barne) eta istripuen aurrean osasun arreta eta arreta farmazeutikoa estaltzeko eta, bereziki, aberriratzeko (hilez gero) eta jatorrizko herrialdera itzultzeko osasun garraiorako estaldura mugagabea izango duena, gaixotasun edo istripu larrien kasuan.

Bidaia aseguria kontratatzea nahitaezkoa da Erasmus+ programan, eta ezinbestekoa laguntza ekonomikoa jasotzeko. UPV/EHUk IBILI-EHU aseguria eskaintzen du. Ez da diruz lagunduko asegururik gabe eginiko mugikortasunik, ezta irten aurretik sinatutako Dirulaguntza Hitzarmenik ez duen mugikortasunik ere.

Aseguru horren egiaztatgiriaren **kopia** bidali behar da Leioako **Doktorego Eskolara** (DOKe) (doke.nazioartekoa@ehu.eus).

7.2. Egonaldian zehar

Hasierako ziurtagiria: Ikasleak **HILABETEKO** epean aurkeztu beharko du (egonaldia hasi denetik zenbatzen hasita) helmuga unibertsitatean diharduela egiaztatzeko agiria, hau da, hasierako ziurtagiria (*Certificate of arrival*), helburuko unibertsitateak behar bezala bete, sinatu eta zigilatuta. Hemen aurkeztu behar da: nazioartekoak.mugikortasuna@ehu.eus eta doke.nazioartekoa@ehu.eus.

7.3. Egonaldiaren ondoren

- *Egonaldiaren amaierako ziurtagiria:* Ikasleak egonaldia bera eta berorren iraupena egiaztatu beharko ditu nahitaez, **egonaldia amaitu eta hurrengo hilabetean**. Horretarako, Egonaldiaren amaierako ziurtagiria (*Certificate of Attendance*) aurkeztu beharko du, helburuko unibertsitateak behar bezala bete, sinatu eta zigilatuta. Hemen aurkeztu behar da: nazioartekoak.mugikortasuna@ehu.eus eta doke.nazioartekoa@ehu.eus.
- *Azken txostena:* Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak jasotako *Certificate of Attendance* delakoaren datak aplikazio informatikoan sartu ondoren (Europako Batzordeak programa kudeatzeko erabiltzen duena), tresnak berak jakinarazpen automatikoak igorriko dizkie onuradunei ("ikasle" helbidera) **azken txostena** bete dezaten.

Ezinezkoa da mezu horiek zehazki noiz igorriko diren esatea; beraz, "ikasle" posta korporatiboko helbideari adi egoteko eskatu behar da, ikasturtea amaitu bitartean.

Mezua "EU-CORPORATE-NOTIFICATION-SYSTEM@ec.europa.eu" helbide elektronikotik jasoko da, gaiaren atalean hau adierazita: "*Erasmus+ participant report*". Baliteke spam karpetara iristea. Bertan, online txostenera sartzeko esteka ematen da, eta jasotzen denetik, 30 egun naturaleko epea dago bidaltzeko.

Txostena bete ezean, programa beteko ez dela ulertuko da; hala, jasotako laguntza itzultzeko eskatu eta ERASMUS mugikortasunaren aitortpena gal daiteke.

8. Dirulaguntza ordaintzea

Laguntza bi zatitan ordainduko da:

1. Lehen ordainketan, Europako laguntzaren % 70 jasoko da.
2. Bigarren ordainketa, laguntzaren gainerakoa, egonaldia egin ondoren jasoko da, zenbatekoa egonaldiaren amaierako ziurtagirian adierazitako daten arabera kalkulatuta.

Aipatutako bi ordainketak kudeatzeko tramiteei ekiteko, beharrezkoa izango da deialdi honen 7. atalean aipatzen diren dokumentuak aurkeztea.

9. Ez-betetzeak eta itzulketak

9.1 Arestian deskribatutako betebeharrak justifikaziorik gabe bete gabe geratzen badira, kasuaren arabera, beka baliogabetu, ikasketen kontratua bertan behera utzi eta finantza hitzarmena deuseztatu ahal izango dira, eta, ondorioz, dirulaguntza kontzeptuan jasotako funtsak itzuli beharko ditu ikasleak, eta errektoreordetza honek sustatzen dituen mugikortasun programetako etorkizuneko hautaketa prozesuetatik kanpo geratu ahal izango da.

Era berean, ikasleak ez baditu betetzen kredituei, hizkuntzari, aseguruari eta abarri dagozkion baldintzak atzerriko unibertsitatera iristen denean, programan baja emango zaio automatikoki.

9.2 Zehazki, dirulaguntzaren kontratuan hitzartutakoa baino egonaldi laburragoa eginez gero, ikasleak jasotako zenbatekoaren zati proportzionala itzuli beharko du, CERTIFICATE OF ATTENDANCE delakoaren arabera benetan egin duen egun kopurua aintzat hartuta.

9.3. Bestalde, errendimendu akademikoaren arloko betebeharrak betetzen ez baditu, jasotako laguntza osoa itzuli beharko du.

9.4. Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak beharrezkotzat jotzen dituen dokumentu guztiak eska diezazkieke laguntza lortu duten pertsoneri eta harrera unibertsitateei, mugikortasunak deialdiaren helburuak bete dituela egiaztatzeko.

9.5. Baldin eta laguntzen onuradunak azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikulua kasuren batean badaude, edo deialdi honetan edota dirulaguntza emateko erabakian ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badute, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak, dagokion erabakiaren bidez, galdutzat emango du ordaintzeke dauden zenbatekoak jasotzeko eskubidea eta, hala badagokio, itzultzeko betebeharra ezarriko du, alde batera utzi gabe bidezkoak diren gainerako egintzak, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, zeinaren bidez arautzen den dirulaguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra eta ezartzen diren haien kudeaketan parte hartzen duten Erakunde Kolaboratzaileen baldintzak, araubidea eta betebeharrak.

Leioan, 2023ko maiatzaren 31n.

M. Juncal Gutierrez Mangado

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordea